

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobemu Kontseiluaren 29/2024 Erabakia abenduaren 23koa. 25/2012 Foru Dekretua aldatzea, apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egituraren eta Funtzionamenduaren Araudia onartzen duena

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea garai batean Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Saila deitzen zenari atxikitako erakunde autonomo gisa sortu zen ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren bidez. Erakunde horren xedea da Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen alorrean Arabako Foru Aldundiari dagozkion helburuak betetzea; bi lege hauek, maiatzaren 20ko lehengo 6/1982 Euskal Legeak eta azaroaren 25eko 27/1983 Euskal Legeak, Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoak, xedatzen dutenaren ildotik.

Urriaren 4ko 1620/1988 Foru Dekretuaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduaren lehenengo Araudia onartu zen. Araudi horrek aipatutako Foru Arauak jasotzen zuen erregulazioa osatu eta antolaketa, funtzio eta prozedurari buruzko arloak zehaztu zituen. Handik aurrera, Diputatuen Kontseiluko hainbat foru dekretuk (urriaren 1eko 701/1991, uztailaren 20ko 151/1993, abenduaren 5eko 119/1995 eta irailaren 28ko 126/1999) erakunde autonomoko Administrazio Kontseiluaren eraketa aldatu zuten, Arabako Foru Aldundiko sailen egitura aldatzen joan zen heinean.

Era berean, azaroaren 2ko 135/1999 Foru Dekretuak idazketa berria eman zien Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Antolaketari, Araubideari eta Funtzionamenduari buruzko Araudiko 13., 14. eta 15. artikuluei, administrazioko errekursoak urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak eragindako aldaketetara egokitzeko. Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, aldatu zuen.

Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuei buruzko arau batzuk aldarrikatu ziren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko araudi berria aldarrikatzea aholkatu zuten, besteak beste, Arabako Foru Aldundiko orduko Gizarte Gaietako Sailaren eta Institutuaren arteko eskumen-banaketa argitzeko beharrak, Erakundeko langile lan-kontratudun finkoen funtzionarizazioak izandako aldaketa nabarmenak eta, ondorioz, langileen eguneroko kudeaketarako erreferentziazko arau-esparrua aldatzeak. Erregelamendu hori Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 13ko 2/2004 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.

Geroago, araudi hura onartu zenetik erakundearen eskumen-eremuko mugari garrantzitsu batzuk izan dira: Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea onartu zen, bai eta hura garatu zuen arautegia ere, eta abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bidez Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema ezarri zen. Baita, apirilaren 12ko 7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen duena aldarrikatu izanak aholkatu zuten, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko erregelamendu berri bat aldarrikatzea, zeina Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu baitzen.

Araudi berriak erabat argitu eta sistematizatu zituen GOFeren zuzendaritza organoen egitekoak eta eskumenak, hau da, Kudeaketako Zuzendaritzarenak eta administrazio organoenak, eta horri esker erakundeak esparru juridiko egonkorra eduki du lan egiteko. Izan ere, gaur arte ez da aldatu.

Aurrekoa gorabehera, gizarteak etengabeko bilakaera izan du gai garrantzitsuei dagokionez, hala nola indarkeria matxistari edo gizarteratzeari dagokionez, eta, horren ondorioz, aurrerapen sozialak eta legegintzakoak egin dira iragandako denboran, terminologian, jarduteko jarraibideetan eta esku hartzeko prozeduretan eragin zuzena duten zenbait lege onartuta. Horregatik, garrantzitsua da Foru Erakundearen egitura-antolamendua berrikustea eta eguneratzea, etengabe hobetzeko eta ahalik eta erantzunik onena emateko indarkeria matxistaren eta gizarte-bakterketako egoeren aurrean.

Aurrekoa oinarri hartuta, Foru Erakundeak arreta hobea eman behar die indarkeria matxistari eta gizarteratzeari buruzko zerbitzuei, eta, horrez gain, zerbitzu horiei entitate propioa eman behar zaie. Horregatik, Gizarteratze eta Indarkeria Matxistaren Arloko Zuzendariordetza Tekniko berria sortu da. Zuzendariordetza berri hau orain arte Gizartegintza Arloak garatutako eginkizunez elikatuko da. Hori dela eta, aldaketa batzuk egin behar izan dira. Besteak beste, sortzen den organoak bete behar dituen funtzioak jasotzen dituen agindu berri bat sartu da, eta Gizartegintza Arloan kendu egin dira jada esleituta ez dituenak.

Beraz, aipatutako guztia aintzat hartuta, foru dekretu bat onartu behar da GOFeren Araudia onartu zenetik legerian gertatu diren aldaketetara eta Erakundearen antolamendu beharrizan berrietara moldatzeko hasierako izpiritua eta egitura funtsean aldatu gabe.

Araudi hori bat dator Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa betetzeari dagokionez. Plana egiteko, aurreko araudiaz gain, kontuan hartu dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Arabako V. Foru Plana (2022-2026) inspiratzen duten berdintasun-printzipioak (2022ko abenduaren 28an onartua).

Xedapen hau bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuan jasotako erregulazio onaren printzipioekin. Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzea.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 13. artikulua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena, Gizarteratze eta Indarkeria Matxistaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoa idazketan administrazio-organo berri gisa sartzea. Honela geratuko da idatzita artikulua hori:

13. artikulua. Administrazio organoak

1. Foru dekretu honetako 2. artikuluan ezarritako helburuak betetzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egiturari hainbat administrazio organo ezarri dira. Organook beren esku-menen barruan jardungo dute, Kudeaketako Zuzendaritzak koordinatuta eta beraren zuzeneko aginpideari lotuta.

2. Hauexek dira administrazio organoak:

- Ekonomia eta Aurrekontu Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.
- Lagileen Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.
- Antolamendu eta Informatika Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.
- Adinekoen Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.
- Desgaitasuna duten pertsonen Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.

- Adingabeen eta Familiaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.
- Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.
- Gizarteratze eta Indarkeria Matxistaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.
- Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoa

Bigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 18. artikulua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena, eta honela idatzita uztea:

18 – Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoa.

Hauek dira Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoaren ardurak:

a) Foru-sareko gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa eskatzen duten pertsonak artatzea, lehen auzialdian, hargatik eragotzi gabe beste administrazio publiko batzuek esleituta dituzten eskumenak.

b) Arabako Lurralde Historikoan dauden gainerako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu guztiekin koordinatzea.

c) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen prestazio eta zerbitzuetarako eskaerei buruzko espediente guztiak bideratzea, baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta, behar denean, espediente eskumena duen Zuzendariordetza Teknikoari igortzea, kasuan kasuko zerbitzu motaren arabera.

d) Erakunde autonomoaren beste arlo tekniko batzuetan sartzan ez diren esku-hartze sozialerako eremuetan diharduten pertsonen zuzendutako programa, prestazio, laguntza eta zerbitzu guztiak kudeatzea.

e) Etxez Etxeko Laguntza programaren kudeaketa eta jarraipena.

f) Indarrean dagoen gizarte-araudiak Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko prestazio ekonomikoak kudeatzea eta horien jarraipena egitea.

g) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin sinatutako kontratuen, itunen eta lankidetzaren hitzarmenen jarraipena eta kontrola egitea, baldin eta arlo honen jardueraren eremuekin lotura zuzena badute.

h) Arlo honetan sartutako edozein gizarte-baliabide eskuratzeko eskaeren administrazio-izapideak egitea, eta Erakunde Autonomoaren Kudeaketako Zuzendaritzari dagozkion ebazpen-proposamenak helaraztea.

i) Asoziazionismoa sustatzea a) letran aipatzen diren eremuetan, eta parte-hartze soziala sustatzea Arabako Lurralde Historikoko landa-ingurunean.

j) Izapidetzea, organo tekniko espezializatuen bidez, desgaitasun maila eta mendekotasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko administrazio prozedura izapidetzea, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta horien ebazpen-proposamenak Erakunde Autonomoko Kudeaketako Zuzendaritzari helaraztea.

k) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendaritza organoei aholku teknikoak ematea arlo honen jardueraren eremuekin zerikusia duten gaien buruz, eta, halaber, dauden beharrak aztertzea eta horien gaineko proposamenak egitea Kudeaketako Zuzendaritzari.

l) Erakundearen arteko koordinazioa, arlo honen jardun-eremuan.

Hirugarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuari 18.bis artikulua gehitzea, eta honela idatzita uztea:

18.bis. artikulua.- Gizarteratze eta Indarkeria Matxistaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoa

Gizarteratze eta indarkeria matxistaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoari dagokio:

a) Honako hauei berariaz zuzendutako zerbitzu guztiak kudeatzea:

- Baztertuta dauden pertsonak gizarteratzea.
- Gaixotasun mentala duten pertsonak.
- Biolentzia matxistaren biktimak diren emakumeak.

b) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko zentroak kudeatzea, arloaren egitura deszentralizatuaren bidez, baldin eta zentro horiek zerbitzu espezifikoak ematen badizkiete aurreko letran aipatutako kolektiboei.

c) Erakundeak irabazi asmorik gabeko entitate publiko eta pribatuei dirulaguntzak emateko egiten dituen deialdi publiko guztiak izapidetzea eta ebazpenerako proposamena egitea.

d) a) letran aipatutako kolektiboei zerbitzu espezifikoak ematen dizkieten erakunde autonomoak zeharka kudeatutako zentroen asistentzia-kalitatearen hobekuntzaren jarraipena egitea eta hobekuntza bultzatzea.

e) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin sinatutako kontratuen, itunen eta lankidetzaren hitzarmenen jarraipena eta kontrola egitea, baldin eta arlo honen jarduera-eremuarekin lotura zuzena badute.

f) Dagoeneko arlo honetan txertatuta dauden gizarte-baliabideetako edozeinetara iristeko eskaeren administrazio-izapideak egitea, Arlo horretan arreta jaso duten pertsonen aldetik, eta Erakunde Autonomoaren Kudeaketako Zuzendaritzari dagozkion ebazpen-proposamenak helaraztea.

g) Asoziazionismoa sustatzea bere eskumen-eremuan.

h) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendaritza organoei aholku teknikoak ematea arlo honen jarduera eremuarekin zerikusia duten gaiei buruz, eta, halaber, dauden beharrak aztertzea eta horien gaineko proposamenak egitea Kudeaketako Zuzendaritzari.

i) Erakundeen arteko koordinazioa, arlo honen jardun-eremuan.

Lehenengo azken xedapena.- Indarrean sartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Azken xedapenetako bigarrena.- Argitalpena

Dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 23a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken diputatua
GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
MIREN SARATXAGA DE ISLA